

TERESA LISIEUXKOAREN FAMILIA



Naizta, Teresatxo deunak, mundu zear, Lisieuxko erriaren fama zabaldu, ezan bertan jaio. Alenzonengo alaba dogu jaiotez. Ementxe munduratuko da 1873. urtarrilaren iruan. Normandiako erri txiki eta dotore bi oneetan biziko ditu Teresak bere urte emonkorrak. Ogei-ogetamar milla biztanle inguru ditue. Ta orain eun urte, amasei-ogei milla. Teresak bultzatuta, gaur egunean, ixte bi milloi erromes igaroten dira bi erri orreetatik. Teresaren magalpean eta lepotik bizi da bertako geiengoa.

Jaio eta urrengo egunean, Notre-Dame parrokian, Maria Frantzizka Teresa izenagaz:bateatua izango da. Baiña bai familian eta bai Karmengo Ordenan, Teresa deituko dautsoe danak. Amabesoetako bere aizta zaarra izango da. Eta onen lagun batek, Paul Boulek egingo dau aitabesoetako.

Teresaren gurasoak

Bere gurasoak, Luis Martín (1823-1894) eta Zelia Guerin (1831-1877) ditugu. Bai Luisen aita eta bai Zeliaren aita militarak ziran. Biok artuko dabe parte orduko gerra aundietan. Euskalerrian zear be ibili jakuzan. Bata, Luisen aita, "Los cien mil hijos de San Luis" deritxon armadagaz. Ta bestea, Zeliaren aita, Frantziako tropakin, Gasteizko gerran gogor egingo dau.

Lusek ez dau militar izateko gogorik. Ezta abade izateko be. Ogei urtekin lekaide izateko gogo bizia sentitzen dau. Or doa, Alpesetan aurkitzen dan San Bernadoren monastegiko atea jöten. Eta ez dautsoe aterik zabalduko, latin ez dakialako. Etxera biurtuta jo ta ke ekingo dautso latin ikasteari. Oso aldats gora egiten jako erromatarren izkuntza. Ta erlijioso izateko asmoak bertan bera izten ditu.

Eguneroko ogia irabazteko, bitxigintza ta erlojugintzako ikasketak egiten asiko da. Lenengo Rennesen. Gero Es-




Zelia, Teresaren ama.

trasburgon, umetan ikasitako aleman izkuntza be ondo menperatuko dau. Eta Parisen artelan orreen sekretua ikasi ondoren, Alezonengo zentru-zentruan, erloju-bitxi denda eder bat ipiniko dau. Gaur be, bertan jarraitzen dau denda orrek. Luis esku onekoa danez, ez jako lanik falta. Negozioa ondo doakio.

Gogoko jakoz liburuak irakurtzea eta gustatzen jakozan pentsamentuak eta olerkiak bere koadernoetan idatziko ditu. Olako bere bi-iru koaderno baditugu oraindiño. Literato erromantikoak ditu

gustokoenak. Maite ditu musika eta pintura eta eskultura eta abar. Batez be naturzale aundi bat dogu Luis. Erritik kanpo, "Pavillon" deritxon etxedorre eder bat erosiko dau. Bertara joango da, sarritan, bakartadearen eta naturaren edertasunaren billa. Orduak emongo ditu inguruko erreka bazterretan, arrantzan. Orixo dau izan be, bere kirol gogokoena. Oporretan ordoa Europako bazterrak eta artelanak miresten. Artista arima dau Luisek.



Luis, Teresaren aita.

Teresatxoren ama be gattetan moja izateko gogotan ibili jakun. Gaixoak eta baztertuak zaintzeko, Karitateko moja izatea erabakitzen dau. Emeretzi urte besterik ez ditu. Baiña au be ez dabe artuko Bizente Paulen alabak euren etxean. Ez dakigu ziur zergaitik ezeben onartu. Badi-ra bere amari errua leporatzen dautsoenak... Baiña gauzea ez dago argi.

Bizitzari aurpegia emoteko, "Alezonengo puntuzko artelan famatuaz" jabetuko da. Esku fiñeko emakumea dogu Zelia. Punta-puntako brodatzaillea. Amabost-ogei emakumeeekin lan-tegitxo bat sortuko dau. Paristik eta Bruxelastik ainbat eskari artuko ditu. Eginala dauko bearra. Dirua be polito irabazten dau.

Luis eta Zelia, Lourdesko Amabirjiñea agertu zan urtean, ezkontzen dira. Au da, 1858. urtea. Luisek 34 urte ditu eta Zeliak 26. Naizta temperamentuz oso desberdiñak izan, ondo baiño obeto konpotzen dira alkarrekin. Euron kartetan argi ikusten da alkarri eutsoen errespetoa, maitasuna eta samurtasuna. Jaungoikoagan oiñaritzen dabez euren bizimodua eta bizitza. Egunero



asiko dabe eguna goizeko lenengo meza santua entzunez. Euron egun aundia, domekea da. Egun orretan Luisek bere erloju dendea ez dau zabaltzen naizta merkatu eguna izan Alenzonen. Ta orrela diru ederra galdu. Domekea Jaunaren eguna eta Eleizaren eguna dala-ko. Baita "etxeko eleizaren", au da, familiaren eguna be bai. Origaitik normalean ezeben, domeketan, ibillaldirik egiten familiagaz alkartuago bizitzeko.

Pobreak famili onen atea- zabalik daukeez. Kalem zear aurkitzen dabezan txiroentzako be eskuzabalak ditugu Luis eta Zelia. Geixoei eta txiroei laguntzeko, beste batzuekin, "San Bizente Paulen batzarrak" sortuko dabez. Baita Ozananen "Katoliku Batzarkide" be egin dira. Urtero urtero, diru mordoska eskeiniko dabez eleizari laguntzeko eta mixioetarako. Bein, Lisieuxko Katedraleko parroquia estu ta larri dabil altara nagusi barria ordaintzeko. Ta Luisek ordainduko dau oso osorik. Luisen eskuzabaltasunak ez dauko mugarik. Espe- rientzi oneek, Teresaren eta bere aizen biotzak mara-mara doaz ureztatzen.

Arrazoi aundiz autortuko dau Teresak: "Txoritxoak gurasoei entzunez ikasi oi daben bezela abesten, umetxoak be antzean ikasten dabe birtute-zientzia, Jainko-maitasunaren kantu ederra, eurak bizitzan eratu-ten diran arimen ondoan" (A Esk., 53^a)

Gurasoen eragiña Teresaren bizitzan

Gurasoen eragiña itzela izango da Teresaren biotzean. "Jainkoak lurrerako baino



Maria, Teresaren aizta.



Paulina, Teresaren aizta.

zerurako duinagoak ziren gurasoak eman zizkidan", idatziko dau bi illabete il baiño leenago (TG 261) Aitagandik biotzberetasuna eta eder-zale-
tasuna artuko ditu. Ta gauza guztien gaiñetik here sentiberetasun fiña. Zer ikusi aundia izango dau bereiztasun onek, Teresaren bizitzan. Bai sufritzeko orduan eta bereziki maitatzeko orduan. Teresaren biotza maitasunean bizitzako egiña, dirudi. Aitagandik ikasiko dau "maitasunez jokatzen eta ez bildurrez" (ik. A Esk., 83^a) Aita il ondoren



Leonia, Teresaren aizta.

egindako olerki baten, otoitz au urtengo dautso Teresari biotz barnetik: "Oroi zaitetz lurrean gu maite izatea zala zure zorion betea" (TO, 8).

Amagandik, ostera, buru argia eta bizitzari aurea emoteko adorea eta kemena artuko ditu. Ori bai, biengandik barru-barruko sinismen sendoa eta pertsonala. Teresarentzat ez da izango ain zaila, Jaungoikoa errukia eta maitasuna besterik ez dala sentitzea. Bere familia orixe baiño ez dau ikusten. Gurasoengandik somatuko dau Jaungoiko-

aren samurtasuna. Bere idatzietan edonon agertzen dira bere gurasoengandik artutako esperientzi zoragarriak. Parabola bi oneetan ze ederto erretratatzan dabezan Teresak bere aita ta ama Jaungoikoaren biotzberatasuna eta errukia somatzeko orduan.

Bellière abadegai gaztea bildurrez bizi da Jaungoikoaren aurrean. Ta Teresak beste gauza ederren artean diñotso: "Konparazio erraz baten bidez, zera ulertaraz nahi nizuke: Jesusek beregan konfidantza osoa duten arimak maite dituela, harik eta inperfektoak ere. Suposa dezagun aita batek bi seme esantzarreko eta bihurri dituela, eta hauek zigortzerakoan, seme bat dardarka hasi eta beregandik urrundu egiten zaiola ikusten duela bihotzaren sakonean egitan zigortua izatea merezi duela agertaraziz; bere anaia, ordea, aitaren besoartera hurbildu eta aita atsekabetu beharraz damutzen dela diotso, maite duela, eta horrela dela agertzeko, aurrerantzean ona izango dela. Seme honek aitari musu bat emanez zigortzeko eskatzen badio, ez dut

uste zorioneko aita horren bihotza bere semeari konfidantza filialari erresistituko zaionik, zeinaren zintzotasuna eta maitasuna ezagutzen dituen. Ez du halere, bere semeak behin eta berriro falta berberak egingo dituela, baina beti barkatzeko prest egongo da, semeak bihotza irabazten baldin badio... Beste semeaz ez diotsut ezer, nere neba maitea, ulertuko duzu aitak bigarrena haina maitatuko eta tratatuko ete duenik" (TG 258).

Ia-ia konparaziño berbera dakar bere aizta Leoni errukarriari zuzendutako kartan be. Kasu onetan aita izan bearrean ama dator. Eta seme bi barik, seme bat erreazio desbardiñaz amaren aurrean. Au da, konfiantzaz edo mesfidantzaz. (ik. TG 191).

Olako parabolak erraz asmatzen ditu Teresak. Biotz barneko esperientzi ederrak baiño ez dira. Teresak, Jaungoikoaren maitasuna azaltzeko, bein eta barriro bere gurasoen jokabideak jartzen ditu begien aurrean: "Eder izan dau Jainkoak nire bizitza guztia maitasunez jostea: nire lenengo gomutak irribarre ta txera leunenakaz josita dagoz!... Eta Berak antolatu baeban maitasun ugari nire inguruan, Berak antolatu eban nire biotz txikia be, maitagarri ta sentikor egiñik; bizi-bizi maite nebazan, ba, neure gurasoak eta era askotan erakutsi oi neutsen neure samurtasuna, alai-zabala nintzan-eta" (A Esk., 4).

Teresa eta bere aitzak

Esan oi danez, ume guztiak daukee neba-arrebak eukiteko eskubide osoa. Teresak fabore ori izan dau. Berau dogu bederetzi neba-arrebetatik, gazteena. Eurotatik, lau



Zelina, Teresaren aizta.

txiki-txikitan ilgo dira. Bi mutil eta bi neskatxo. Orduko ume-ilkortasuna larria zan izan be. Teresa mundura etorri zanean, bere beste aiztak urte oneek daukeez: Mariak 13, Paulinak 12, Leonik 10 eta Zelinak 4 besterik ez. Aizta bakotzak bere eragiña izango dau Teresangan. Euron samurtasunaz eta ardureaz inguraturik biziko ditu bere urterik onenak. Ezin da Teresaren bizitza pentsau be egin, eurok barik.

Batez be Paulinaren eskua agertuko da Teresaren bizitzan. Umetatik Paulina artuko dau bere eredutzat. "Beti euki zindudazan, ene Ama, neure eredutzat, eta zer guztietan zeure antzeko izan gura neban" idatziko dautso Teresak (A Esk., 81^a). Origaitik, ama il ondoren, Paulina aukeratuko dau bere amatzat (ik. A Esk., 13^a) Paulina izango da Teresaren bigarren "amatxo".

Bere eldutasunean esango dautso: "Neure buruari itanduten dautsot batzutan zelan azi al izan ninduzun ain maitatsu ta samur erregutu ta mizke egin barik, ain zuzen be ez eustazun egundo be errazoi barik asarrerik egiten, baiña ezta atzera egin be arturiko erabagi baten aurrean" (A Esk., 18^a). Gurasoen ondoren, Teresangan eragin geien izan dauana, Paulina da. "O, ene Ama maitel, zeu izan zifian niti kanteran erakutsi zeustana... Zeure abotsa izan zan, ni umetatik birloratu ninduna eta orain pozgarri jat, zeure antzeko nazala, esaten entzutea" (A Esk., 53^a) Pare bat illabete il aurretik, Teresak onela ikusten dau bere aizta eta "amatxo": "Ene ama nerea, zein ederra den dagokizun zaitia!... Zure duin da benetan, gure familiako pribilejatuaren horren duin; zu, bere laguntaldearen buru ikusten den enaragida txiki horren antzera, erreinu berrira gidatu behar dituen bidea airean iruditzen duen enararen antzera, zu, bidea erakusten diguzun horren duin" (TG 216).

Teresaren ama aipatzean, Paulina beragaz lotuta ikusi bear da. Paulina bai dala Teresantzat, bere ama Zeliaren irudi bizia eta antzekoa.

Andoni Olea